

Hernaniko **KALEEN** ikuspegi historikoa

MERTXE AROZAMENA SAGASTIBELTZA

"Hernani 1998" aurtengo argitalpen honetan bukatutzat emango dugu herriko 28 kaleen deskribapena historiaren ikuspegitik. Kale horiek izendapen ofiziala jaso dute Udalak hartutako hainbat akordioaren bidez. Horrela, bada, aurreko urteetako edizioetan hasitako lana osotu egingo da oraingo azalpen honekin.

Artikulu honekin kaleen deskribapena bukatutzat emango badugu ere, datozen urteetan, Hernaniko udal mugapean dauden auzo, parke, pasealeku eta plazei buruzko datu berriak emango ditugu argitara.



AINGURA KALEA

KALE LABURRA da hauxe, bidezubiaren eta Karabel kalearen artean kokatua, azken honekin bat egiten duela.

Hernaniko burdinola zaharretan hain entzuna izan zen ainguragintzaren oroitzapenez, Urumeako aingurak alegia, eman zaio kale honi bere izena.

Hernaniko Udalbatzak, 1975eko maiatzaren 6an egin zuen osoko bilkuran Ancoras izena eman zion kale honi. Orain duen euskarazko izena 1988ko martxoaren 29an eman zion Udalbatzak Osoko Bilkuran.

ARISTIZABAL KALEA



URBIETA KALEAN du hasiera eta Iturregi kalearekin bat egiten duen lekuan berriz, amaiera.

Nicolás de Aristizabal (XVIII. mendea) administrazioko goi mailako karguetan aritu zen Ameriketara eta Madrilera. Hernaniko Alkate izendatu zuten, ohorezko tituluarekin, Felipe Varen gortetik herriari emandako zerbitzu baliotsuak zirela eta.

Kale honi Hernaniko Udalbatzak eman zion izena, 1975eko maiatzaren 6ko Osoko Ohiko Bilkuran.

GARTZIA GOLDARAZ KALEA

ZINKOENEA plazaren aldamenean Florida auzora jaisteko dagoen errepidean, eskaileretako parean hasten den kaleari eman zaio izen hori, Aita Oblatuen aintzinako finkan eraiki ziren etxeblokeetan barrena sartu eta Florida auzora

ateratzen da bi lekutan errepide hori zeharkatzen duela.

José García Goldaraz Hernanin (Gipuzkoa) jaio zen 1893ko urriaren 27an. Gaztea zela poesia landu zuen euskaraz eta "Euskal-Esnalea" aldizkarian kolaboratzaile gisa aritu zen. Comillasko (Santander) Pontifize-Unibertsitatean egin zuen Teologia, Zuzenbide eta Filosofia Doktoretza. 1925ean Orihuelako (Alicante) katedraleko kalonjetza eskuratu zuen eta geroago Madrilera joan zen Rota Auzitegiko idazkari eta Nuntziatura



Apostolikoaren aholkulari gisa. Pax Christi batzordeko lehendakari izan zen eta baita Estatu Kontseiluko bokala.

1944an Orihuelako apezpiku izendatu zuten eta 1949an Cartagena-Murciako aulkia bete zuen administratzaile apostoliko gisa. 1953an Valladolideko artzapezpiku izendatu zuten eta han hil zen 1973ko ekainaren 10ean.

Kaleari izen hori emateko erabakia Udalbatzak hartu zuen 1973ko uztailaren 17an egindako Osoko Bilkuran.


ITURREGI KALEA

HERRI BARRUKO bide honek Oarso eta Sandiusterri kaleek bat egiten duten lekuan du hasiera, Txantxillako futbol zelaia inguratu eta bi zatitan banatzen da, alde batetik Laubidietako bidegurutzeraino eta bestetik, eraiki berri diren etxe multzoraino.

Iturregiko Jentil zuloa izenez ezagutzen zen haitzuloan du jatorria kale honek, kalearen beheko aldean eta urrunago zegoena. Haitzulorako sarreraren gainean Santiago Carreroren aintzinako ehunen lantegia zegoen eta bertatik erreka zetorren, "Iturregi" iturrian ura isuri ondoren, izen bereko parajeko lursailak ureztatu eta Latxunbeko garbilekuan urak isuri eta, aire zabaleko edo lurpeko kanalizazio bidez, Urumea ibairaino zihoan.

Latxunbe-berrin etxebizitza-bloke berriak eraiki eta bertako urbanizazioa egitearen ondorioz, Iturregi erreka, Latxunbeko erreka deitua ere, desagertu eta ahantzia geratu da.

Kalearen hasieratik Laubidietako bidegurutzeraino doan kale zatiari izena eman zion Udalbatzak 1991ko urriaren 24an egindako Osoko Bilkuran.





KARABEL KALEA

TRENBIDEAREN behe pasabidetik, Balantxaren aldamenean, Nafarroako bide zaharraren zati bat dagokio kale honi gaur egun eta Karabelgo zubian bukatzen da. Kokatua dagoen lehengo auzoaren izenetik hartu zuen bere izena kale honek. Bizpahiru baserri baizik ez ziren leku horretan garai batetan. Eta aintzinago, oso aintzina, Donostiako portua eraiki aurretik hemen portua izan zeneko aztarren argia. Untzi erreferentzia, dudarik gabe. Kale honen izena Udalbatzak onartu zuen 1975eko maiatzaren 6an egindako Osoko Bilkuran.

KARMELO LABAKA KALEA

FLORIDA AUZORA

doan errepidean du hasiera eta Antziolako errepideraino doa bide ez zuzena eginez.

Karmelo Labaka Errezola, Albizturren (Gipuzkoa) jaio zen 1905ean. Hernaniko parrokoa izan zen 1940. urteaz geroztik eta horretan aritu zen bitartean hainbat ekimen eraman zituen aurrera, gaixoei eta behartsuei ematen zien lehentasunezko atentzioa ahanzi

gabe eta parrokiako administrazioa baztertu gabe. Lan handia egin zuen halaber haurren formakuntzan eta gazteriaren etorkizunarekiko kezka handia zuen. Herriko gizarte-errealitatearen jakitun, formakuntzako zentro bat sortu zuen, hernaniar ikasle gazteek kultura eta erlijio aldetik eta lanerako prestakuntza egokia izan zezaten. Proiektua gauzatu egin zen "Escuela Profesional Obrera (E.P.O.)" izenez ezagutzen zen eskolan. Gaur egun bere izena daraman Institutu Politekniko

honek aurten ospatuko du 50. urteurrena.

Karmelo jaunak 11 urte besterik ez zituen Hernanin egin eta heriotza etorri zitzaion 1951ko abenduaren 17an, 46 urte zituela.

Buru-belarri aritu zen lanean bizitza osoan eta herrian utzi zuen aztarna ahaztezina agerian geratu zen bere hiletetan eta herriko hilerrira eraman zuen jende-oldea ikusita.

Kale honen izena Udalbatzak erabaki zuen 1974ko urriaren 10ean egindako Osoko Bilkuran.



OARSO KALEA



KALE LABURRA da hauxe, Sandiusterri eta Iturregi kaleek bat egiten duten lekutik eta irteerarik gabeko kalean bukatu baino lehen, Aristizabal kalera doan kaleska baten bidez luzatzen da. Izena ba omen datorkio Errenteriako "Inmobiliaria del Oarso, S.A." enpresarekin zerikusia zuelako, izan ere, 1954. urtez geroztik etxebizitza 5 blokeen multzoa eraiki baitzuen, "Grupo Oarso" izenarekin ezagutua eta kale honetatik dute etxe horiek sarrera. Izena emateko erabaki ofizialik ez da aurkitu.



PERKAIZTEGI KALEA

KARMELO LABAKA kaletik abiatu eta pixka bat aurreraxeago bukatzen da irteerarik gabeko kalean.

Larramendi Aitaren arabera, hernaniar hauxe izan zen Indietatik artoa Gipuzkoara ekarri zuen lehena eta hortik zabaldu zen beste herrialde batzuetara, nekazaritzarako oso mesedegarri izanik artogintza. Hori dela eta, 1927ko ekainaren 21ean, Hernaniko

Udal Batzorde Iraunkorrak erabaki zuen Gonzalo de

Percaiztegui izena kale bati ematea, hain zuzen ere, gaur egun Atzieta kalea den harresiz kanpoko auzoaren ekialdeari, Foruen plazatik (gaur Plaza Berri) Urnietako errepideraino (gaur Portale Txoko). Hala ere, erabaki hori aldatu egin zuen Udalbatzak 1988ko martxoaren 29an egindako Osoko Bilkuran eta Perkaiztegi kalea izena gaur egun daramanari eman zion, aurreko kalearen ordeez.

SANDIUSTERRI KALEA



ELKANO KALEAN du hasiera, eta Zirkuitoko errepidearekin bat egiten duen lekuan, Axala etxearen parean berriz, amaiera.

Ertaroko aztarrenak erakusten ditu, eta Manuel Lekuona zenaren ustetan Santiago bideko hirigune koxkor bat omen zen hor XII. mende inguruan, San-Just-Herri hain zuzen.

Kale honi Udalbatzak eman zion izena 1984ko urriaren 25ean egindako Osoko Bilkuran.